# haitzulo artifizialen ibilbidea

# ruta de las cuevas artificiales



## Denboran zehar egindako bidaia...

Ibilbide honek Arabako Gaubeako udalerriko Valparaisoko San Martinen, Corron, Pinedon eta Tobillasen dauden haitzulo artifizialak zeharkatzen ditu. GR 1-Ibilbide Historikoak haitzuloetara garamatzaten zenbait osteratxo egiteko aukera eskainiko digu.

Araban, ehunetik gora haitzulo artifizial daude, eta, VII.-VIII. mendeetatik aurrera, garaiko ofiziala ez beste erlijiotasun bat bizitzeko leku moduan indusi zituzten.

## *Un viaje en el tiempo….*

*Esta ruta recorre las cuevas artificiales que se conservan en los enclaves de San Martin de Valparaiso, Corro, Pinedo y Tobillas, en el municipio alavés de Valdegovía. Siguiendo el trazado del GR 1-Sendero Histórico podremos disfrutar de varios paseos que nos acercan a las cuevas.*

*En Álava existen más de un centenar de cuevas artificiales que, a partir de los siglos VII-VIII, se excavaron como lugar de vivencia de una religiosidad distinta a la oficial de la época.*




## Gaubea / Valdegovía




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentrua

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural

Ayuntamiento de VALDEGOVIA
GAUBEAko Udala

## SAN MARTIN DE VALPARAISO

Gaur egun, Valparaisoko San Martin balio naturalistiko handiko kokalekua da, eta honako hauxe nabarmendu beharra dago bertan:

- Kareharrizko azaleramendu ikusgarriak eta horma ezin bertikalagoak. Izan ere, hegazti harraparien biziguneak dira, eta eskaladarako ere erabiltzen dira.
- Iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen San Martin erreka.
- Paisaia bera beti-beti berdez tindatzen duten pinudi gorriak (*Pinus sylvestris*) eta artadiak (*Quercus ilex ssp rotundifolia*).

*Hoy en día el barranco de San Martín de Valparaíso es un enclave de alto valor naturalístico, donde destacan:*

- *Los espectaculares afloramientos calizos y paredes extraplomadas, donde nidifican aves rapaces y se practica la escalada.*
- *El arroyo San Martín, que lo surca de Norte a Sur.*
- *Las masas forestales de pino albar (Pinus sylvestris) y encina carrasca (Quercus ilex ssp rotundifolia), que dotan al paisaje de un colorido siempre verde.*





*En las rocas del barranco de San Martín de Valparaíso encontramos, además de abrigos y cuevas, los restos de lo que pudo ser un monasterio medieval, que existía ya en el año 919 y que se mantuvo hasta el siglo XII. Al pie de los farallones se conservan también varios conjuntos de tumbas excavados en la roca.*

Valparaisoko San Martineko sakaneko haitzetan, babeslekuak eta haitzuloak ez ezik, Erdi Aroko monasterioaren ustezko aztarnak ere badaude ikusgai. 919. urtean, monasterio hori zegoen bertan, eta XII. mendera arte egon zen zutik. Harkaitzen oinaldean, gainera, haitzetan indusitako zenbait hilobi-multzo ere badaude.

## PINEDO

Santiagoko Haitzean, 660 metroko altitudean, kareharrizko haitzetan, VI.-VII. mendeetan bi altuerako haitzuloa eraiki zuten babesleku harritsuaren alboan. Goiko aldean, hutsune hori egurasteko zuloaren ondoan, ageriko bi hilobi daude ikusgai. Era berean, beste hiru hilobi ere badaude babesleku harkaiztsuaren beheko aldean. Antropomorfoak dira, euren egitura giza formara egokitzen zen-eta.

*En la Peña Santiago a 660 m, en terrenos de rocas calizas, hacia el siglo VI- VII se construyó una cueva de dos alturas en un abrigo rocoso. En la parte superior, junto al orificio de aireación de este hueco, se conservan dos sepulturas al descubierto. Otras tres tumbas se localizan en la parte inferior del abrigo rocoso. Son antropomorfas, ya que su estructura se adaptaba a la forma humana.*






Hona hemen hilobiak eraikitzeko eman beharreko urratsak:

1. Gunea atontzeko asmoz, harria lautu eta hilobiaren silueta marrazten zuten.
2. Estalkia txertatzeko gunea hustu eta behar besteko sakonera lortu arte industen zuten.
3. Hildakoak hil-oihalaz estalita lurperatzen zituzten, eta hilobia estaltzeko lauza edo lauzak jartzen zituzten.

*Las tumbas se construían siguiendo estos pasos:*

*1. Se acondicionaba el lugar aplanando la roca y se marcaba la silueta de la tumba.*

*2. Se rebajaba la zona en la que encajar la tapa y se excavaba hasta lograr la profundidad suficiente.*

*3. Se se enterraba al difunto envuelto en un sudario y se colocaban las losas o losa que cubrían el enterramiento.*



## CORRO



Gainetan, 680 metroko altitudean, Mairuen haitzulo artifizialak eraiki ziren harkaitz harritsuaren babespean. Haitzulo horiek leku helezinean zeuden kokatuta Corroko kanpoko aldean, eta zenbait erabilera izan zituzten urteen joan-etorrian. VI.-XII. mendeetan, erretiroan eta bakardadean hobezintasun kristauaren bila zebiltzan eremutarrentzako bizilekua, tenplua eta ehorzlekua izan ziren.

*En Los Lomos, a 680 m de altitud, se construyeron las cuevas artificiales de Los Moros, en un peñón rocoso. Estas cuevas, ubicadas en las afueras de Corro, en un lugar de difícil acceso, tuvieron diferentes usos a lo largo del tiempo. En los siglos VI- XII fueron morada, templo y lugar de enterramiento para los eremitas.*



VII. mendearen amaieran nekazaritza garatu zenean eta kristautasuna eremu horietaraino hedatu zenean, nekazariak handik hurbil finkatu ziren. Inguruko biztanleen esanetan, XX. mendearen hasieran, saltzaile ibiltari bat finkatu zen bertan. Haitzuloa eraldatu eta biltegia jarri zuen. Erabilera berriena nekazaritzarena izan da, ordea.

*El desarrollo agrícola de finales del siglo VII y la expansión de la cristianización hasta estas zonas animaron a campesinos a establecerse cerca de ellas. Los habitantes de la zona cuentan que a principios del s. XX, un vendedor ambulante se instaló en este lugar. Modificó la cueva y habilitó una zona para almacenaje. El uso ganadero ha sido el más reciente.*

## TOBILLAS



Tobillasen, haitzulo artifizialak ikusteko osteratxoa emango dugu, eta, horrez gain, San Roman eliza ere bisitatuko dugu, Euskadiko tenplu antzinakoenetakoa da-eta.

*En Tobillas, además de dar un paseo para ver las cuevas artificiales, no hay que dejar de visitar la Iglesia de San Román, uno de los templos más antiguos que se conservan en el País Vasco.*



828. urtean, Abito abadeak San Roman eliza sortu zuen monasterio moduan. Hain zuzen ere, musulmanek penintsularen gaineratikoan eragindako presiotik ihesi iritsi zen bertara. Jende-taldearekin etorri zen inguruan finkatzeko asmoz, eta honako hauxe ekarri zuen: 24 idi-pare, 100 behi, 80 behor, 20 zaldi eta mando, 500 ardi eta 24 meza-liburu. Erabateko kapitala zen garai hartarako.

*La Iglesia de San Román fue fundada como monasterio en el año 828 por el abad Avito, que huía de la presión musulmana que había en el resto de la península. Llegó con un grupo de gentes para repoblar la zona, llevando consigo 24 juntas de bueyes, 100 vacas, 80 yeguas, 20 caballos y mulos, 500 ovejas y 24 libros litúrgicos, todo un capital para la época.*

